

2006KO URTARRILAREN 19KO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta sei uztailaren hameretzi, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi, Arantxa Zumelaga Agirre, Inazio Barandiaran Aldasoro, Amagoia Naldaiz Mingo, Kepa Goenaga Alikostes, Xabier Arrasate Aierbe, Gorka Lamy Insausti, Juan Manuel Serna Portugal eta Angel Olaso Villalba.

Igor Sarriegi Zumarraga eta Milagros Alvarez Novoa zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2005eko azaroaren 24an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- HIRIGOIENGO BIRRURBANIZAZIO LANEN 3. ETA 4. ZERTIFIKAZIOAK.-

Hirigoiengo Birrurbanizazio lanen obra zuzendaritza daraman Iñaki Laskurain Gisa-sola ingineruak (INJELAN, S.L.) lanen hirugarren eta laugarren zertifikazioak luzatu ditu. Hirugarren zertifikazioaren zenbatekoa HIRUROGEITA SEI MILA SEIEHUN ETA HOGEITA BOST EURO eta HOGEITA HEMEZORTZI ZENTIMotakoa (66.625,38 €) da eta laugarren zertifikazioarena HIRUROGEITA LAU MILA SEIEHUN ETA HOGEITA HAMALAU EURO eta BERROGEITA BEDERATZI ZENTIMotakoa (64.634,49) da. Lan Hauek GAIMAZ, S.A. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak zertifikazioak aztertu eta bere oneritzia eman die.

Serna zinegotziak lanei buruz ea hauek aurrekontuarekiko nola dihoazten galde-tzen du.

Alkateak erantzuten dio ez dela aldaketa handirik egon, etxebizitzetako akometidak aurkitzeko kata batzuk egitea izan ezean eta ezer asko gehiago ez. Gehitzen du epeetan bai, pixka bat atzeratuta dihoaztela, eguraldi txarraren ondorioz edo.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Hirigoiengo Birrurbanizazio lanen hirugarren eta laugarren zertifikazioak onartzea erabakitzen du.

IV.- FUTBOL ZELAIKO OBREN LIKIDAZIOA.-

Arizti Haundi Futbol Zelaiko Birmoldaketa eta Aldagelak proiektuaren obra zuzendaritzak futbol zelaiko birmoldaketa lanen eta aldagela lanen zertifikazio likidazioak luzatu ditu. Lan hauek Miguel Imaz, S.A. enpresa ari da burutzen. Futbol Zelaiaren Birmoldaketa lanen bederatzigarren zertifikazioa, likidazioa dena, HOGEITA BI MILA ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA HIRU ERURO eta HIRUROGEITA HAMAHIRU ZENTIMO-takoa (22.863,73 €) da eta Aldagela Proiektuko lanen zortzigarren zertifikazioa, likidazioa dena baita ere, BERROGEITA HAMAR MILA SEIEHUN ETA LAUROGEITA SEI EURO eta HIRUROGEITA ZORTZI ZENTIMO-takoa (50.686,68 €).

Obra zertifikazio hauek udal teknikarien oniritzia jaso dute.

Serna zinegotziak (PSE-EE) aurreko puntuan egin duen galdera bera egiten duela esaten du, hau da, ea lanak esleitu zireneko aurrekontuarekiko aldaketarik egon al den.

Alkateak erantzuten dio kasu honetan baietz, egon direla aldaketak, kostu igoera zenbaitzu egon direla eta hasierako aurrekontuan jarritako kopuruen aldaketak ere onartu direla. Gehitzen du aldaketa garrantzitsuenak, hasiera batean beranduagoko fase batean burutzea aurrirakosten ziren lanen aurreratzeak eragindakoak izan direla; baita ere pistaren perimetroko urak biltzen dituen estolderia, espaloia, bestalde, esaten du alde guztietatik ura azaldu dela eta ur horiek biltzeko kanalizazio zenbaitzu egin behar izan direla, ur sarea ere aldatu beharra izan zen, eta zio guzti hauengatik egon direla aldaketak, eta orain buruz ez dazkiela baina kopuru garrantzitsuak izan direla.

Serna zinegotziak esaten du lanak esleitu zireneko zenbatekoa eta aldaketena jakitea nahiko lukeela eta guztira zenbat gastatu den.

Alkateak erantzuten dio informazio hori helaraziko diola.

Guzti hau kontutan izanda eta zertifikazio hauek aztertu ondoren, Udal Osoko Bilkurak, aldeko hamar botu, aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (PSE-EE), berauek onartzea erabakitzen du.

V.- UDAL LANGILEEN LAN BALDINTZEI BURUKO HITZARMENA ONARTUZ LUZATUTAKO ALKATETZAREN EBAZPENA BERRESPENA.-

Alkateak gaiaren azalpena egiten du. Esaten du EUDEL alde batetik eta ELA, CC.OO. eta UGT sindikatuek bestetik Euskal Autonomi Erkidegoko Toki Administrazioako eta 2005, 2006 eta 2007 urteeetarako lan baldintzei buruz, akordioaren hasierara iritsi direla. Gehitzen du akordioaren hasiera hori kontutan izanda EUDELetik 2005eko soldaten igoera lehen bai lehen aplikatzea aholkutu dutela eta gainontzekoari buruz, oraindik ere negoziatzen ari direnez, negoziaketaren amaiera arte itxoitea. Hau horrela, 2005eko soldaten igoera hori, 2004koarekiko %4,1ekoa, Alkatearen ebazpen bidez onartzea erabaki zen gero ebazpen horren onarpena Osoko Bilkura honetara ekarri, bere berrespenerako.

Esaten du akordioaren hasiera horretan jasotzen diren gainontzeko puntuak oraindik ere negoziatzen ari direla eta negoziazio horren amaiera arte itxoin beharko dela.

Hau horrela, EUDEL alde batetik eta ELA, CC.OO. eta UGT sindikatuek bestetik, Euskal Autonomi Erkidegoko Toki Administrazioa eta 2005, 2006 eta 2007 urteeetarako lan baldintzei buruz lortutako akordioaren hildotik, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, 2005eko soldatak %4,1 igotzeko Alkatetzak emandako ebazpena berrestea erabakitzen du.

VI.- 18/98 SUMARIOAREN INGURUAN ARALAR TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA.-

Jarraian Aralar Taldeak Udaletxean aurkeztu eta Alkatetzak Osoko Bilkurara ekarri duen mozioa eztabaidatzen da.

Mozioak honela dio:

Hasi da 18/98 sumarioari dagokion ahozko ikustaldia. Bere oinarrian duen tesi bakarra zera da, erabat zilegiak diren jardura politiko eta sozialak, ideologikoki ETaren zenbait postuladurekin bat egiten dutenaren argudiopean, erakunde armatuaren konplize, laguntzaile edo kide izatearekin parekatzea. Tesiaren zentzugabekeria nabarmenak agerian uzten du estrategia politiko jakin baten esanetara hartutako neurriak direla. Estrategia horren bidez, gure herriko esparru sozial eta politiko zabal bat espainiar legeriatik kanpo utzi nahi da eta Euskal Herriak nazio gisara aurrera egin dezan hainbat esparrutatik egiten den lan antolatua oztopatu. Horretarako, hainbat herritar eta talderen askatasun zibil eta politikoak urratu dira: adierazpen askatasuna, biltzeko eta elkartzeko eskubideak, askatasun ideologikoa edota disidentziarako eskubidea.

Talante berriaz eta bake prozesuaren atariaz larregi hitz egiten den momentu politiko honetan, sumario honek atzeragoko denborak ekartzen dizkigu gogora. Are gehiago, sumario hau azken hamarkadetako barrabaskeria juridikorik handiena da 59 auziperatu eta mila urteko kartzela eskaerarekin. Euskal Herriak erreakzionatu beharra du, ezin da isilik geratu.

Gainera, Euskal Herriak behar duen bake prozesua abian jartzeko oztopo da eta, neurri horretan, Espainiako Gobernuak aukera ezin hobea du prozesu horrekiko bere konpromisoa eta borondatea erakusteko.

Egoera honetan, ondorengo mozioa aurkeztu diogu Udalbatzari, giza eskubideen urraketak gainditu behar direla eta Euskal Herriak behar duen bake prozesuan alde guztiek urratsak eman behar dituztela defendatzen duten guztien babesarekin onartuko den esperantzaz:

- 1.- Lazkaoko Udalak 18/98 sumarioa dela eta Entzutegi Nazionalean hasi den epaiketa epaiketa politikoa dela azpimarratu nahi du. Abiapuntu politiko eta antidemokratikoa duen epaiketa da. Ideien kontrako prozedura baten aurrean gaude.
- 2.- Pertsona eta taldeen askatasun zibil eta politikoak adierazpen askatasuna, biltzeko eta elkartzeko eskubideak, askatasun ideologikoa eta disidentziarako eskubidea ukatzen dituen prozesua da.

- 3.- Epaiketa hau kaltegarria da bizi dugun une politikoan aurrera egin ahal izateko. Kaltegarria da konponbiderako.
- 4.- Estatu Espainoleko Gobernuari eskatzen diogu, instrukzioak eman diezazkiola Fiskaltza Nagusiari akusazio publikoa bertan behera utzi dezan.
- 5.- Makrosumario hau urteetan euskal gizartearen kontra egin den bidegabekeria juridiko handiena da. Udalak epaiketa bertan behera uzteko eskatzeko eta inputatuei atxikimendu eta babesa agertzeko egingo diren mobilizazioetan parte hartzera deitu nahi ditugu herritarrok.
- 6.- Elkartasuna adierazi auziperatutako enpresa eta kolektiboei eta haien senitartekoei.

Alkateak (EAJ) esaten du mozio honen aurrean, beraiek aldeko botua emango diotela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du bere alderdiak mozioaren aurka bozkatuko duela eta testu honetan esaten denaren aurkakoa pentsatzen dutelako hain zuzen ere. Gehitzen du oraintxe bertan udal osoko bilkuran aurkitzen garela eta bertan pentsamolde ezberdinak dituzten hainbat talde daudela, batzuk nazionalista eta nolabait ere independentista baita ere eta instituzinal garapenean normaltasunez parte hartzen dutela. Esaten du baita ere 18/98 sumarioa ez dela epai politikoa eta indarkeria gaitzesten ez duten pertsonen eta bere jardunarekin indarkeria babesten dutenen aurkako epaia, eta pentsatzen dutela kasu horietan hala egin behar dela eta 18/98 sumarioa bertan behera uzteko indarkeria gaitzestea besterik ez dela egin behar.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du argumentazio horrekin, behar bada Euskadiko eta Espainiako biztanle guztiei, banan banan, indarkeria gaitzetsi zezaten eskatu beharko litzaiekela.

Serna zinegotziak esaten du erakundeek ezartzen dituzten postulatu politikoak, erakunde horiek osatzen dituzten pertsonak dituzten postulatu politikoak direla, zuzendaritzek egiten dutena erakunde horien postulatuak defenditzea dela eta horrgatik daudela egoera horretan.

Arrasate zinegotziak (EAJ) esaten du mozioaren alde bozkatuko duela baina esan nahi duela baita ere berrogeita hemeretzi lagun daudela poltsa berean sartuta eta berak horietatik zenbait pertsona ezagutzen dituela eta ez daukala inolako zalantzarik ETArekin zer ikusirik ez dutela esateko, eta hildo horretatik bai iruditzen zaiola arbitrariedadea dagoela eta gauzak ezin direla horrela egin. Esaten du baita ere mozioa sakonagoan aztertuiko balute behar bada zenbait gauzekin hain ados ez legokela eta esaten du adibidez sei garren puntuan epaituta dauden enpresa eta kolektiboei elkartasuna adierazten dela eta galdetzen dio Lazkaoko Aralarri eta Transportes Azkarren bonba jarri zutenean ez zuen moziarik aurkeztu hori salatuz, behintzat berak dakidanez. Eta bukatzen du esanez, zentzu honetan pixka bat sesgatutako analisisak direla eta berak ez dituela gustuko.

Alkateak esaten du hor esan den gehienarekin ados dagoela baina ETAk indarkeria alde batera utzi eta gero ere Euskal Herriari bere etorkizuna erabakitzen ez zaiola utziko, eta arazo hori ere, bestearekin nahastu gabe baina, hor dagoela.

Olaso zinegotziak (PP) esaten du botere judiziala botere independentea dela eta epaileari konfiantza eman behar zaiola. Gaineratzen du ez dela askatasuna baldintzatzen eta horren frogaz gaur hemen mozio hau eztabaidatzen egotea da. Esaten du baita ere ez dela ideien aurka joaten eta bakoitzak bereak azaltzen dituela, eta ezer ez baldin badute libre aterako direla. Eta ezin dela epai injustoa denik oraindik sententziarik ez dagoenean.

Estensoro zinegotziak esaten du masiboki jarduten ari dela eta egunero ari garela telebistatik ikusten egiten ari diren irregulartasunak eta horregatik uste duela kritikoak izateko zioak daudela.

Guzti honen ondoren, Osoko Bilkurak, aldeko bederatzi botu (EAJ, EA) eta aurkako bi botuz (PSE-EE, PP), mozioa onartzea erabakitzen du.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.